



HLM PUSSY

Nora el Hourch, Frantzia, 2023

FITXA TEKNIKOA:

Jatorrizko izenburua: *HLM Pussy*.

Urtea: 2023.

Iraupena: 101 min.

Herrialdea: Frantzia.

Zuzendaria: Nora el Hourch.

Gidoia: Nora el Hourch, Éléonore Gurrey, Sara Wikler, Raphaëlle Richet, Violaine Bellet, Nathalie Saugeon.

Musika: Clément Tery.

Argazkia: Maxence Lemonnier.

Aktoreak: Bérénice bejo, Médina Diarra, Leah Aubert, Salma Takaline, Oscar Al Hafiane, Amélia Lacquemant, Mounir Margoum, Adam Hafsia, Hind Faiz, Paulin Gautier, Steve Achiepo.

IKASLEAK


DBH • DBHO • OLH

2025 • 2026



Programa
honen ideia
eta garapena
Irudi Biziak®-enak
dira.





FILMEAN ZE HAR

1. ZIUR ZAUDE EZ ZARELA MUTILEKIN GAUZAK EGITEN ARI ZAPATILA BATZUK EROSTEKO? EH? NAHI DUZUNA KONTA DIEZADAKEZU. ADOS?



ESZENA 01

Hiru lagunak institutuko liburutegian daude hizketan. Gelako beste ikasle bat agertzen da eta honako elkarriketa hau ematen da:

DNEBE: Hau hartu nuen, gustatzen zaizu?

ZINEB: Noski.

DNEBE: Asko gustatzen zait, honekin.

ZINEB: Baina, zer neurri? Zenbat balio du?

DNEBE: Ezer ez, dohainik da. Nik ordaindu? Inoiz ez.

AMINA: Ados neskak, diseinua guztiz berregina dut. Zergatik ez duzu Pariseko helbidea jartzen zure CV-an? Erazagoa izango da, hemengoa zarela pentsatzen badute, beka lortzea errazagoa da.

ZINEB: Noski, baina badakizu ez dagoela arazorik Parisen aurkitzeko?

AMINA: Noski baietz, zoragarria izango da. Dnebe, esan nizun. Gainera nire aitak Eiffel dorrearen parean leku bat dauka. Argazki bikainak atera ditzakegu zure "genebabe"-entzat.

DNEBE: Badakizu niri Eiffel dorreak bost axola zaidala. Zakil bat dirudien hori?

Denek barre egite dute.

DNEBE: Ezin dut, oso itxusia da.

AMINA: Bai, bai, noski...

DNEBE: Nik Estatu Batuak nahiago ditut.

AMINA: Estatu Batuetan beka bat?

DNEBE: Bai.

AMINA: Bi astetan?

DNEBE: Bai, banoa.

AMINA: Eta, CV-rik gabe?

DNEBE: Noski, izar bat naiz. Zure CV-a pilo bat gustatzen zait.

AMINA: Idatzi hemen zure helbidea.

ZINEB: Idatzi.

DNEBE: Non?

AMINA: Hiruan.

DNEBE: Ados, zergatik jartzen du Amina Maggie?

ZINEB: Nor da?

AMINA: Aizu, nire aitak bigarren izen bat jartzea erabaki zuen.

DNEBE: Amina Maggie? Zure aitak ez zaitu maite.

AMINA: Bai, zera da... ahaztu.

SARA: (Iseka eginez.) Amina Maggie... je je Eta ondoren, zer? Amina Maggie te piska bat zerbitzatuko dizue, mesedez.

IRAKASLEA: Sara, mesedez.

SARA: Liburu bat hartzen ari naiz, jauna, besterik ez.

IRAKASLEA: Joan haren bila.

DNEBE: Eta, tipa honek? Zertarako nahi du liburu bat, ez daki irakurtzen eta? Lehengo, bigarren eta hirugarren maila errepikatu zituen. Zertan ari da gure gelan?

SARA: Irakurtzen baino lehen, zurruputzen ikasi zuenak dio.

DNEBE: Baina, zer nahi duzu? Ez dituzu lagunik?

AMINA: Utziozu.

SARA: Ni naiz, zurekin jada ibilitzen ez dena. Zuek ez daukazue bata bestearekin zer ikusirik. Talde honek ez du zentzurik: moja, astakiloa eta eroa.

DNEBE: Daukazun buru handi horretan koherentzia balego bezala. Ezer ez dator bat, eta Picassok ezingo zintuzke margotu. Oso itsusia zara, baita zure arropa ere. Nahi baduzu, app bat dut zuretzat.

SARA: Zuretzat, guztiek "urdanga" esaten dizute, ez esan nola jantzi behar dudun. Kardashian plantak egiten dituzu, baina oso pobrea zara.

DNEBE: Ona izaten ari nintzen, baina potorreraino jartzen ari nauzu.

IRAKASLEA: Dnebe! Zatoz. Nirekin!

DNEBE: Bai, jauna.

IRAKASLEA: Pasilora.

DNEBE: Baino urrun dago.

IRAKASLEA: Orain.

DNEBE: Oraintxe nator.

AMINA: Ni naiz eroa? Esaidazu.

ZINEB: Itxaron.

AMINA: Ni naiz eroa?



- **1. JARDUERA. Eszena analizatzen.** Azter dezagun eszena TALDE TXIKITAN, dagokion gaiari dagokionez (**hipersexualizazioa eta emakumeen gorputzen kontrola**).
 - Emakumeen gorputzekiko hipersexualizazioaren eta/edo kontrolaren gaiarekin zerikusia duten baieztapenak aurki ditzakezue eszenan?
 - Zuen erantzuna baiezkoa bada, zuen ustez, zer asmo dago horrelako baieztapenak egiteko? Hiru lagunetako bati buruzkoa zehazki al da? Zergatik?
 - Aurreko galdera baiezkoa bada, nolakoa da protagonistaren erreakzioa? Zer diozu bere egoerari buruz?
 - Nola baloratzen duzue gainerakoen papera eszena honi dagokionez?
 - Zuen ustez, badago prebalentziarik emakumeekiko baieztapen horietan gizonetikiko baino gehiago? Zergatik?
- Talde txikitan hausnartu ondoren, TALDE HANDIAN erantzun guztiak partekatzea proposatzen dizuegu, ikasgelan eztabaida zabaltzeko.
- **2. JARDUERA Sormenezko erantzunak sor ditzagun elkarrekin.** Puntu honetan lantzen ari garen gaia kontuan hartuta (hipersexualizazioa eta emakumeen gorputzen gaineko kontrola), jarraian sormen-ariketa bat proposatzen dizuegu, TALDE TXIKIETAN egiteko eta, ondoren, ikasgelan DENEKIN PARTEKATZEKO.
 - Kartel bat diseinatzera gonbidatzen zaituztegu (eskuz edo digitalki), gorputzekiko hipersexualizazioa salatzen duen kanpaina baterako (emakumeen gorputzean arreta jarritz) eta, gainera, gorputz guztien aniztasuna, errespetua eta ahalduntzea sustatzen duten mezu positiboak proposatzen dituen. Zuen kanpainan elementu hauek agertu behar dira:
 1. Landutako gaia salatuko duen esaldi/eslogan zirrargarria.
 2. Diseinatzen duzuen irudi edo sinbolo bat.
 3. Hausnarketarako gonbita egingo duen mezu laburra.
 - Ondoren, pertsona batek bozeramaile lanak egin ditzala kanpaina gelako gainerakoei aurkezteko.



ESZENA 02

DNEBE: Zineben etxera noa.

DNEBEREN OSABA: Itxaron, itxaron, unetxo bat mesedez.

DNEBE: 5 minutu izango dira.

DNEBEREN OSABA: Segundu bat, segundu bat. Zer da etiketatu zaituzten argitalpen hau?

DNEBE: Etiketatu?

DNEBEREN OSABA: Bai.

DNEBE: Nik ere ikusi dut. Aizu, ez da niri buruz! Benetan, osaba, zin dagizut.

DNEBEREN OSABA: ziur zaude ez zarela mutilekin gauzak egiten ari zapatila batzuk erosteko? Eh? Nahi duzuna konta diezadakezu. Ados?

Jarrariako eszenan, Dnebe kaputxaz jantzita agertzen da kolean, bere kontrako pintada misoginoak ezabatzeko, bat-batean Zak agertzen denean.

ZAK: Zer esan dut bideoaren amaieran?

DNEBE: Karim zulora bidaliko duzula.

ZAK: 2 ordu dituzu ezabatzeko, edo akabatuko zaitut.

DNEBE: Hum, hori jada esan didazu.

ZAK: Ulertuko duzula ziurtatuko dut, putatxo. Ez bakarrik tag batekin, ez ahaztu, 2 ordu. Eta igurtzi gogor.

Honen ondoren, Dnebek Zinebi ahots mezu bat bidaltzen dio.

DNEBE: Zin, zure nebarekin hitz egin behar duzu. Zak geratu behar dugu.

- **JARDUERA Eszena analizatzen.** Eszena honetan, hasiera batean, Dneberen osabaren eta haren arteko elkarriketa bat gertatzen da. Horri dagokionez, hausnartu TALDE TXIKITAN, hausnarketarako bide gisa gai hauek hartuta:
 - Zer gertatzen da eszenan?
 - Generoari buruzko zer gai islatzen dira bertan?
 - Zein da Dneberen papera heldu gisa?
 - Zer elkarriketa alternatibo eman zitekeen bi senideen artean?
 - Betalde, ondoren Zak eszenan azaltzen da. Dneberetikiko bortizkeriarik ikus dezakezue harengandik? Erantzuna arrazoitu eta eszenan ikus daitezken baieztapenak adierazi.

- **4. JARDUERA. Teoria errealtater a hurbilduz.** Ondoren, ariketa hau proposatzen dizuegu BANAKA egiteko, gure gorputzen gainean egiten den **kontrol** sozialari buruz hausnartzeko..

– Testu labur bat idatzi behar duzue (300/500 karaktere), gure gorputzen gainean dagoen **presio sozialari** buruz. Filmean atzemandako adibideak erabil ditzakezue, baita zuen bizitzetan edo sare sozialetan ere. Testuaren izenburua hurrengoa izan daiteke: **“Nire gorputzak ez du zure baimenik behar”**.

2. PATRIARKATUA JAIOTZEAGATIK EPAITZEN GAITUEN EPAILEA DA.



ESZENA 03

ZINEB: Nola joan zen Clementen etxean?

AMINA: Buf, oh! Atzo gauza heavy bat ikasi nuen: klitoriak 20 zentimetro neurtzen ditu. Harrigarria da, baina barrutik doanez ez zara konturatzen, baina horrelakoa. (Eskola-erregela bat seinalatuz.)

DNEBE: Amina...

AMINA: Benetan.

DNEBE: Benetan?

AMINA: Benetan da.

DNEBE: Zin egiten duzu? Kar, kar oso luzea da.

AMINA: Sinestezina da, ezta??

DNEBE: Urdaiazpiko handi bat bezalakoa da. (Erregelarekin txantxak eginez.)

ZINEB: Aski da, geld! Zer nazka!

AMINA: Ez da ezer gertatzen.

DNEBE: Amatxo maitea! Hau erokeria!

ZINEB: Nazkagarria!

DNEBE: Sinestezina!

AMINA: Neska batek esan zidan Clementen etxean. Neska guztiak klitorianoak garela esan zuen, baina mutilek baginako orgasmoei buruz bakarrik hitz egiten dutela, horrela bakarrik korritu egin gaitzkeela pentsa dezagun.

ZINEB: Asko ikasi duzu Clementen etxean.

DNEBE (Mugikorra botatzen.): Arraioa! Potrotaraino nago, ez dut inoiz irabazten zozketa kaka hauetan. 10.000€ irabazi ahal nituen Nike pare horientzako.

AMINA: Ene Jaungoikoa.

DNEBE: Hau amorrua!

AMINA (Hirurak egiten ari diren ariketa plastikoari buruz.): Urdin pixka bat jarriko dut.

Zineben telefono mugikorra dardarka hasten da.

AMINA: Nor da?

ZINEB: Zera... Zak zen.

AMINA: A, etaz er nahi du?

ZINEB: Fariden bila ibiliko da.

AMINA: Orduan... erantzun.

ZINEB: Ez, ez dut gogorik. Bueno... ez, ez da momentua.

AMINA: A... Eta zergatik tematzen da? zer ez du ulertzen? Bideoa erakutsi behar diogu.

ZINEB: Ez, Mina, mesedez.

DNEBE: Amina, urduritzen duzu, ez da hainbesteko. Zer nahi duzu?

AMINA: Urduritzen dudala? 15 mila aldiz deitzen dio eta... Nik urduritzen dut?

Zineben telefono mugikorraren dardarak etengabe jotzen jarraitzen du Zaken deiekin. (Zakaria).

AMINA: HLM Pussy, a zer ergelkeria. Banoa.

ZINEB: Amina...

DNEBE: Orduan, ez dakizu zergatik hainbeste deitzen duen?

Amina igogailuan jaitsi da Zineben etxetik eta Zakaria atarian aurkitzen du. Bien arteko hurrengo elkarrizketa ematen da, Zak Zinebek duen erantzungailu-mezua bozgorailuan jarri ondoren (ez baitizkio deiak erantzuten).

ENTZUTEN DA: “kaixo, Zineb naiz, konturatuko zinen, ezin naizela jarri”.

ZAK (Amina begiratzuz.): Bai, Zineb ni naiz, jarrai dezagun azken aldiak hitz egiten ari ginenarekin. Zure gelako lasaitasunean elkarrekin geundenean. Badakizu, zure amaren urtebetetzera zurekin joateko eskatu zenidanean, ikusi nahi ninduzulako, eta nik zu. Benga, Zineb musuak. (Zinebi ahots-postontzian grabatuta uzten dion mezua amaituz, Amina begira duen bitartean.)

ZAK (Aminari.): Aurrera, andereño, mesedez. (Atariko atea irekitzen dio) Eta noski, egun ona izan dezazula.

Amina ataritik irteten den bitartean, hurrengo kanta entzuten dugu atzetik: “Patriarkatua jaiotzeagatik epaitzen gaituen epailea da. Eta gure zigorra ikusten ez duzun indarkeria da. Patriarkatua jaiotzeagatik epaitzen gaituen epailea da eta eta gure zigorra dagoeneko ikusten duzun indarkeria da. Feminizidioa, hiltzailearentzako inpunitatea, desagerpena da, bortxaketa da. Eta errua ez zen nirea, ez non nengoen, ez nola janzen nintzen”.

- **5. JARDUERA. Eszena analizatzen.** Transkribatutako 3. Eszenan, 3 lagunen arteko elkarrizketa bat gertatzen da, Zakek Zinebi egiten dion jazarpenarekiko Aminaren erreakzioa dakarrena, eta ondoren Amina harekin atarian topatzea.

– Jarraian, TALDE TXIKITAN, atzetik entzuten den kanta, **inguruko bortizkeria fisiko eta sinbolikoen** gaiarekin lotzea nahi dugu:

“Patriarkatua jaiotzeagatik epaitzen gaituen epailea da. Eta gure zigorra ikusten ez duzun indarkeria da. Patriarkatua jaiotzeagatik epaitzen gaituen epailea da eta eta gure zigorra dagoeneko ikusten duzun indarkeria da. Feminizidioa, hiltzailearentzako inpunitatea, desagerpena da, bortxaketa da. Eta errua ez zen nirea, ez non nongoen, ez nola janzten nintzen.”

- **6. JARDUERA. Errealitatea analizatzen.** Entzuten den JSB, 2019 biralizatutako abesti bat da. Jarraian, TALDE TXIKITAN, kantari buruzko bilaketa eta haren istoriari buruzkoa ere egin behar duzue.

1. Ondoren, kanta guztia transkribatu (interneten aurkitu dezakezue kanta) eta estrofa ezberdinak analizatu behar dituzue, *HLM Pussy* filmarekin eta landutako gaiarekin lotuta.
2. Ikasgelan zuen hausnarketak eta aurkitutakoa partekatu.



ESZENA 04

Zineb etxera iristen da afaltzera eta atetik sartu bezain laister etxean afaltzen ari den Zaken begirada desafiataileaz ohartzen da.

ZINEB: *Barkatu berandu etortzeagatik.*

ZINEBEN AMA: *Deitu zeniezadakeen...*

ZINEB (Bere amari bi muxu emanez.): *Kaixo, ama.*

FARID: *Deitzen nauen bakoitzean Zinebengatik da.*

ZINEB (Bere nebari.): *Zer moduz?*

FARID (Agurrari erantzunez eta bien ama imitatuz.): *Aizu, zure arreba deitu, arduratuta nago, non dago?*

AMA: *Tira, zer pena. Entrenamendura kamiseta zikin batekin joango zara, zure arreba ez baitu futboleko kamisetarik.*

FARID: *Beno, ba, bere kamiseta arrosak janzten ditut.*

AMA: *A zer zorte txarra! Zer esango dizut! Uste dut telefonoa ez dabilela zure ama denean, ez lagunekin bezala. Konturatzen ez naizela uste al duzu?*

ZINEB (Afaria zerbitzatu eta afaltzen hasiz.): *Bismillah.*

AMA: *Bismillah.*

ZAK (Zinebi.): *Mayatza?*

ZINEB: *Txikitatik joko honetan birrindu zaituztet. Jolastu nahi duzu? Maiatza? Maiatza? Maiatza? Joder, maiatza egunero maiatzeko zuhaitz bat. Ikusten?*

FARID: *Bainu da. Egidazu kasu, bainu. (Amari.)*

AMA: *Ez, ez, ez dut jolasa ezagutzen.*

FARID: *Bainu da, ama. Joder! Bainu termalak. (Zaki begiratzuz.)*

ZAK: *Zer egin dezaket termalak hitzarekin, txo?*

ZINEB: *Azkenekoa izanda, galdu, beti bezala, kar, kar.*

AMA (Zaki belarrira.): *Termostato.*

ZAK (Barrezka.): *Tira, galdu dut, tio. Badakizue zer esan didan? Termostato.*

Denek egiten diote barre amaren ekarpenari.

FARID: *Ama, zure erruz galdu du, galduarazi egin diozu.*

AMA: *Baina inzialak ditu.*

ZAK: *Barrez lehertuko naiz.*

Hurrengo eszenan, Zineb sukaldean dago, platerak garbitzen, Zak agertzen denean.

ZAK: *Zergatik makur jokatu duzu? Are gehiago, ziur nago dena grabatu zenuela. zer esan nuen Karimi buruz ez naizela gogoratzen?*

ZINEB: *Ez dakit.*

ZAK: *Erakutsidazu bideo osoa, mesedez.*

ZINEB: *Ez daukat.*

ZAK: *Ez erotu, Zineb.*

Farid eta bere ama sukaldan sartzen dira.

AMA: *Farid, platerak garbitu, horrela arropa garbia ez ahazten ikasiko duzu.*

FARID: *Ez.*

Honen ostean ikusten den eszenan, Zak-en erasoaren bideo argitaratuak bisualizazio asko lortzen ikusten dugu, biral bihurtuz “Amodioa egingo dizut ero baten moduan. Oso-osorik jango zaitut, nirea zara. Ondo zainduko zaitut zin egiten dizut”.

- **7. JARDUERA. 4. ESZENA ANALIZATZEN.** Materialaren atalean lantzen ari garen gaia kontuan hartuta, ondorengo jarduera proposatzen dizuegu: TALDE TXIKIETAN:
 1. Bai transkribatutako eszenan, bai filmean zehar, indarkerien mapa bat marraztu behar duzue, agertzen diren **indarkeria-mota guztiak (fisikoa, ahozkoa, sinbolikoa, instituzionala, digitala)** biltzen dituen eskema baten bidez.
 2. Horren ondoren, hausnartu gai hauek abiapuntutzat hartuta:
 - Nork gauzatzen du indarkeria bakoitza?
 - Nori eragiten dio indarkeria bakoitzak?
 - Zer ondorio dakarzkie indarkeria horietako bakoitzak jasaten dituztenei?
- **8. JARDUERA. Errealitatean kokatuz.** Filmetik gure errealitatera ekarriz, jarraian TALDE TXIKIETAN indarkerien mapa bat diseinatzen animatzen zaituztegu, zuen inguruneetan gertatzen diren indarkeria identifika ditzazuen.
 - Diseinatuko duzuen maparen bidez, gure inguruan egon daitezkeen indarkeriak guztiak nabarmendu eta salatu behar ditugu.

3. HLM PUSSYREKIN BIKTIMA IZATETIK HEROI IZATERA PASATZEN ZARA.



ESZENA 05

Jarraian batera ematen diren, bata bestearen gainean, etengabe ikusten ditugunak, bi eszena transkribatzen dira. Alde batetik, Dnebe, Amina eta Anne institutuan dagoen Zineben bila joaten diren eszena dago. Bestalde, Zineb ikasgelan dagoela, Zak agertzen da, bere anaia zaharrenak, Karimek, eraso eta arbuia ondoren. Hiru lagunak elkarzuten dira:

DNEBE: *Tira, goazen, Zineb itxaroten dago.*

Zineb institutuko ikasgela bat jasotzen ari dela, Zak agertzen da eszenan, Karim anaia eraso eta arbuia ostean.

ZAK: *Joan baino lehen ikusi nahi zintudan, agurtu nahi nuen.*

ZINEB: *Nora joango zara?*

ZAK: *Ez dakit, banao.*

ZINEB: *Ez, itxaron.*

Zineb Zaki hurbiltzan zaio eta agur besarkada bat ematen dio negarrez.

ZAK: *Ez iezadazu ahaztu, mesedez.*

ZINEB: *Ez zaitut ahaztuko.*

Zak Zineben aurrean jartzen da, leku fisikorik utzi gabe eta erasoari ekiten dio. Bitartean, Amina, Dnebe eta Anne Zineb jasotzera doaz institutura.

ANNE: *Ah bide batez, tori! (Eta bere motxilatik urrekoloreko oihal termiko bat ateratzen du.)*

AMINA: *Ostia tia! Ideia bat daukat. Begira.*

DNEBE: *Ez dut ulertzen, benetan ez dut ulertzen. (Bitartean, Aminak tela termikoa ireki eta mugitzen hasi da.)*

AMINA: *Ados, HLM PUSSYrekin biktima izatetik heroi izatera pasatzen zara.*

Aldi berean, beste eszenan Zak-ek Zinebi egindako sexu erasoarekin jarraitzen du.

AMINA: *Ideia ona da, ezta?*

ZINEB: *Zak, mesedez.*

ANNE: *Sekulako ideia da.*

AMINA: *Heldu kapari, tira.*

DNEBE: *Beti gehiago, berak beti gehiago nahi du.*

Aminek barre egiten du eszenarekin. Eta Dneberi jartzen dio kapa.

DNEBE: *Tia heroia zara. Tira, astindu ezazu.*

ZAK: *Honekin amets egin dut.*

Bitartean "Zu zara bortsatzailea" abestia entzuten da.

ZAK: *Maite zaitut.*

ABESTIA: *Zu zara. Zu zara.*

ZAK: *Fidatu nitaz.*

ABESTIA: *Eta errua ez zen nirea, ez non nengoen, ez nola janzten nintzen. Eta errua ez zen nirea, ez non nengoen, ez nola janzten nintzen.*

ZAK: *Asko gustatuko zaizu.*

ABESTIA: *Eta errua ez zen nirea, ez non nengoen, ez nola janzten nintzen.*

(Jarraitu eszena 7. orrialdean.)

ZINEB (Offeko ahotsean kontatuz.): *Gau beltzean, harri beltzean, txingurri beltz bat Jaungoikoak ikusten du.*

ABESTIA: *Zu zara bortsatzailea, Zu zara bortsatzai-
lea, Zu zara bortsatzailea.*

Eta bat-batean Zinebek, Zak bultzatzen du gainetik kentzeko.

ZINEB: *Alde!*

ABESTIA: *Estatu zapaltzailea matxo bortxatzailea da. Estatuzapaltzailea matxo bortxatzailea da. Estatuzapaltzailea matxo bortxatzailea da.*

Zinebek jaka jaso eta institututik irteten da lagunekin elkartzeko.

ABESTIA: *Zu zara bortsatzailea. Zu zara bortsatzai-
lea. Zu zara bortsatzailea.*



- **9. JARDUERA. Eszena analizatzen.** 5. Eszenan, Zak Zineb erasotzen saiatzen den unea ematen da, baina azken honen erantzuna. Honen inguruan BIKOTEKA hausnartu, hurrengo galderak gida gisa erabiliz. Amaitzean zuen hausnarketak TALDE GUZTIAREKIN partekatu.

- Nola analizatzen duzue Zineben azken erantzuna?
- Zer arrisku ditu Zinebek erantzutean?
- Nola uste duzue sentitu daitekeela eszena honen ondoren?
- Zuen hausnarketan, zuen ustez, Zinebek Zaken indarkeriaren aurrean erreakzionatu ondoren beste neska batzuei helaraziko liekeen mezua ere sartu behar duzue..

- **10. JARDUERA. Errealitate alternatiboak sortzen.** Jarraian, TALDE HANDIAN, Aminak, Annek eta Dnebek HLM Pussyren kaparekin sentitzen duten zirraratik abiatuz, GUZTION ARTEAN manifestu bat sortzera animatzen zaituztegu.

- Imajinatu, filmean zehar bizitako guztiaren ondoren, talde protagonista zaretela. Eta ondoren, filmean ikusitakoarekin lotuta, **“Ez dugu barkamenik eskatu behar”** izena duen manifestua idatzi.
- Bertan, **askatasuna, berdintasuna, errespetua eta onespina**, etab. bezalako kontzeptuak azaldu behar dira.
- Ondoren, beste ikasgela batzuekin partekatu dezakezue, edo grabatu eralusteko.





ESZENA 06

Dneberi buruzko pintada misoginoak azaldu ondoren, Aminaren eta haren institutuko kide berriaren (Anne) arteko bideoaren argitalpenari buruzko elkarriketa ematen da.

ANNE: Mina, lasai mesedez, konbikzioz egin zenuen.

AMINA: Zer konbikzio? Nire erruz izorratuta daude.

ANNE: Iraultza puta bat da. Ez dago iraultzarik, arriskurik gabe, biolentziarik gabe, biktmarik gabe. Hala da.

AMINA: Pikutara iraultza. Egin duzuna aparta da, tia, arriskatu zinen. Gerlari puta bat zara.

Aminaren telefonoak dar-dar egiten du dei bat jasoz.

AMINA: Haiek dira.

ANNE: Esaiezu eskolaz aldatu zarela. (Amina negarez) Mesedez, ez negarrik egin. Ba al dakizu? Nahia-go nuke hau niregatik egin izan bazenu. Hipika egiten nuen eta nire irakasleak gauza arraroak egiten zituen.

AMINA: Eta... Oraindik han lan egiten du?

ANNE: Bai.

Honen ostean, Amina bere logelara bueltatzen denean Zineb-en deiak jasotzen jarraitzen duen eszena ematen da, baina ez du erantzuten. Ondoren, ahots-mezu hauek entzuten dira dei-postontzian:

ZINEB: Amina, non zaude?

DNEBE: Erantzun joder. Zein erraza den ihes egitea!

ZINEB: Arduratuta gaude. Larrialdi bat da.

DNEBE: Nabari da ez duzula dianarik bizkarrean.

AMINA: Neskak, Sant La Vien nago. Aitak ez dit aukerarik utzi. Neskak.

ZINEB: Kaixo Zineb naiz, une honetan ezin naiz jarri.


DNEBE: Kaixo! Hau da erreginaren ahots-postontzia. Utzi zure mezua.

AMINA: Erantzun neskak. Mesedez. Ez iezadazue hau egin.

DNEBE: Ezabatu bideo putoa eta zure puta kontu nazkagarria.

AMINA: Berak ez du ezer egingo, beldurra du, mehatxua baino ez da. Hori neska gehiegiri gertatu zaio, ezin dugu amore eman. Bideoa birala egiten ari da, eta horrek erakusten du ez dela normala. Ezabatzen badugu, berak irabaziko du, denek irabaziko dute. Ireki begiak, leku guztietan pasatzen da ordu guztietan.

- **11. JARDUERA. Eszena analizatzen.** TALDE TXIKIETAN, eztabaidatu protagonistek bideoaren argitalpenari buruz dituzten jarrerai buruz, eta azaldu zer jarrera duen haietako bakoitzak. Aurkitu zer baieztapen egiten dituzten eta nola sentitzen diren interpretatu: **1. Amina, 2. Anne, 3. Zineb eta 4. Dnebe.**
- **12. JARDUERA. Gure errealitateetara hurbilduz.** AMAIERA GISA, BANAKA autoebaluazio emozional bat egitera animatzen zaituztegu, galdera hauei erantzunez, gero, nahi baduzue, gainerako taldekideekin partekatzeko:
 1. Nola sentitu naiz, filmarekin lotutako jardueretan parte hartzerako orduan?
 2. Zerbaitetan inspiratu naiz?
 3. Azkenik, eta ez garrantzi gutxiagokoa: nola lagun diezaiokegu gure ikaskideen **ahalduntzeari** gure hezkuntza-ingurunean?



AMAIERAKO ARIKETA

- Gai nagusiak jorratu ondoren (**1. EMAKUMEEN GORPUTZEN HIPERSEXUALIZAZIOA, 2. INDARKERIA MOTA DESBERDINAK eta 3. AHALDUNTZEA**), TALDE TXIKIETAN egindako lana ixtera animatzen zaituztegu, gai bakoitzari buruzko gogoetak berriro bilduz eta TALDE HANDIAN azalduz.